

Enpresetako planen deskarguak



Euskara batzordeak lanean jarraitzen du eta enpresako misioa izango dena zehaztu du dagoeneko. Horrekin batera, kalitateko prozedurak aztertu dira eta hizkuntza irizpideak horietako zeinetan txertatu behar diren zehaztu dute. Une honetan prozedura bakoitzeko irizpideak zehazten eta proposatzen ari dira euskara batzordeko kideak.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Koordinatzailea: Joxe Luix Agirretxe

hamabi-T

Euskara batzordeak bilera egin du eta hemendik aurrerako batzordearen beraren funtzionamendua zehaztu da, planaren dinamizazio eta koordinazio gune errealagoa izateko helburuarekin. Gelditzen diren hilabeteetarako ere lehentasunak, epeak eta arduradunak finkatu ditu, eta etorkizuneko kontratazioetarako langile euskaldunen lan poltsa osatzeko lanetan ari dira.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Planaren koordinatzailea: Iratxe Osés



Koordinatzaileak azaldu duenez, Larrialdiak enpresa handitzen ari da. Horregatik, bestelako departamentu batzuei jakinarazi die Euskara Teknikariarekin harremanetan jartzeko eta egoteko, bakoitzaren esparruan ze normalizazio urrats egin behar dituzten aztertzeko. Gainerakoan, gogoeta batean murgilduta daude itzulpenez gain, bestelako normalizazio urratsak egiteko.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Mikel Rojo

Agurra

Kaixo guztioi,

Olakariaren aurreko zenbakian eman genizuen albistea: Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuan 2 urtez lanean aritu den Emuneko Leire Mujika beste lan batzuk egitera pasa da, eta bere ordez Uxune Alustiza ariko da lanean Joxe Luix Agirretxerekin batera.

Hemendik aurrera zalantzak, galderak, kontsultak etab. berari bideratu beharko zaizkio. Horretarako, hemen duzue harremanetarako helbide elektronikoa:

uxune@emun.com

Enpresen erradiografia

Urte batzuk pasatu dira 2003an OLA plana martxan jarri zenetik. Hainbat enpresak parte hartu du harrez geroztik, eta orain balorazioa egiteko garaia iritsi da.

OLA planaren barnean Euskara Plana garatzen hasi zirenetik enpresek izan duten bilakaera aztertu nahi da: zertan aurreratu duten, OLA planak ze eragin izan duen...

Horregatik jarri diote teknikariek erradiografia izena, enpresen argazki moduko bat atera nahi delako.

Hemendik ateratako ondorioekin, ea OLA planak eguneraketa behar duen aztertuko da, enpresaren konpromisoen jarraipena egingo da eta OLA plana bera baloratuko da.



Automation Products, S.A. Niessen Unit

Niessen elkartearen urteroko afaria antolatu eta egin zuten. Laz kantu afaria izan bazen, aurten bertso afaria izan da: lehen aldiz afariko txartelak atera dira beste enpresa batzuen izenekin, antolatzaile modura.

Bekadun bat kontratatu da, lantegian departamentuz departamentu itzulpenak egiteko: horretarako Word fast tresna informatikoaz baliatuko da. Bestalde, behe urratseko talde bat Euskara Eskolak hartzen ari da.

Laster batean Euskararen Eskuliburua ere prest egongo da aurkezteko. "Nik Esan"en hurrengo zenbakia antolatze lanetan ari dira.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Txus Alfonso



Euskarazko aldizkaria antolatzen ari dira; uztailen aterako da lehenengo zenbakia. Lantegiko Batzar Nagusia egin da eta aurten ere Koordinatzaileak Euskara Planaren deskargua egin du. Batzar Nagusian euskararen erabileran gora egin den sentrazioa dago. Bi talde ari dira Euskara Eskolak hartzen: bat behe urratsekoa eta bestea erdi mailakoa.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Ane Aldaraborda



Koordinatzailearen trebakuntzarekin segitzen dute, eta urte bukaerara arteko plangintza antolatu dute. Horrekin batera, curriculumeko eguneraketak euskaratzen ari dira eta kalitateko dokumentuak itzultzen.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Planaren koordinatzailea: Pilar Otegui



Euskara Planeko azken aldizkaria argitaratu dute. Agenda eta lan kontuak tarteko, azken aldiaren zailtasunak izan dira zuzendariari eskolak emateko. Aurrera begira Euskara batzordea batzordekide gehiagorekin indartzeko asmotan dira.

Bestalde, lantegiko programa informatiko nagusia euskaratzeko zein urrats egin erabakitzeko, bilera izango dute Informatika buruarekin.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**
Planaren koordinatzailea: **Natalia Jauregi**



Enpresako dokumentazioan eta megafoniako mezuen hizkuntza irizpideak finkatu ditu euskara batzordeak. Kide berriak ere sartu dira bertan, eta enpresako sail gehiagotako ordezkariak izanik, eraginkortasun handiagoa izatea lortu nahi da. Honetaz gain, bezeroari zuzendutako dokumentuak itzultzen ari dira.

EMUNeko teknikaria: **Amaia Rodriguez**
Planaren koordinatzailea: **Olatz Amonarriz**



Kontseiluak antolatzen duen Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekitaldian AZTI-Tecnalia ere izango da urtero legez. Izan ere, 2002an lortu zuten ziurtagiria, hain zuzen ere, *Bidean* mailakoa. Laster hurrengo pauso bat emateko asmoa dute eta *Zerbitzua euskaraz* maila lortu nahi dute.

Bestalde, hizkuntza aniztasunak duen balio erantsiaren berri emateko lantaldea abian da. Lehenengo ekintza eleaniztasunaren inguruko datuak zabaltzea izango da: zenbat hizkuntza dauden munduan, horien erabilera, argitaratzen diren tesien hizkuntza, euskara-planak dituzten enpresak eta eragindako langile-kopurua... Datu horien bidez, adierazi nahi da edozein hizkuntza erabilgarri dela eremu guztietan, baita lan-munduan eta ikerketa zentroetan ere.

ELHUYAREko teknikaria: **Maddi Etxebarria**
Planaren koordinatzailea: **Nerea Ganboa**

Diru laguntzak martxan

Lehenbizi, Eusko Jaurlaritzaren HPSk ematen dituen diru laguntzen 2006ko diruak justifikatu genituen.

Ondoren, martxoan, 2007ko diru laguntzen deialdira aurkeztu ginen, eta printzipioz denak onartu dituzte.

Eusko Jaurlaritzak deialdi horren ebazpena ekainean emango zuela ezagutzera adierazi zuen, beraz, uztaila iristerako enpresa bakoitzari dagokion diru kopurua jakinaraztea espero dute arduradunek.

Enpresa bakoitzari berea gutun bidez eta posta elektronikoz bidez jakinarazten die normalean. Bitartean zain egon beharko da.